

# ERABILTZAILEAREN ESKULIBURUA

DECODIFICADOR DIGITAL INTERACTIVO



### **Eskubide guztiak erreserbatuta**

Eskuliburu honetan deskribatutako produktua nazioarteko copyright legeek babestuta dago. Copyright lege horien arabera, debekatuta dago hardwarea edo softwarea edozein asmotarako bikoiztea. Gainera, fabrikatzaileak bere onespena aurretiaz eta idatziz ematen ez badu, ezin da produktuaren zatirik erreproduzitu edo transmititu, eroslearen erabilerarako ez bada –transmisio-modua edo bidea dena delakoa dela ere (elektronikoa edo mekanikoa, fotokopiak, grabazioa edo informazioa biltegitratzeko eta berreskuratzeko sistemak)–.

### **Erantzukizunik eza**

Fabrikatzaileak ez du inolako erantzukizunik softwarearen, produktuarekin doazen eskuliburuaren, idatzitako materialen eta horiekin batera doan beste hardware baten bermeei –merkaturatze- edo prestatze-berme implizituetan sartzen diren eta mugatuta ez dauden berme esplizitu nahiz implizituak–dagokienez. Fabrikatzaileak edozein unetan produktuak berrikusi edo hobetzeko eskubidea dauka eta ez dio inori berrikuspen edo hobekuntza horien berri eman beharrik. Fabrikatzaileak ez ditu bere gain hartzen produktua erabiltzean sor daitezkeen kalteak; kalte horien artean sartzen dira enpresa-galerak edo merkataritza-kalteak ere.

### **Merkataritza-markak**

Fabrikatzaileak ez du argitalpen honetan agertzen diren merkataritza-marken eskubiderik eskatuko. Izen, marka, produktu edo zerbitzu guztiak merkataritza-markak edo beren konpainiek erregistratutako merkataritza-markak dira.

Euskaltelek etengabeko garapenerako politika dauka. Hori dela eta, eskuliburu honetan deskribatutako produktu oro aldatu edo hobetzeko eskubidea du, aurretik jakinarazi gabe.





## Segurtasuna

DCD 2210i kable deskodetzailera nazioarteko segurtasun-estandarren arabera fabrikatu da. Hala ere, segurtasunerako neurri batzuk bete behar dira norberaren segurtasuna eta deskodetzaileren funtzionamendu egokia ziurtatzeko. Kontuan izan jarraibide hauek:

### KARRANPA ARRISKURIK EZ IZATEKO



Kable deskodetzaille honek 110 V-tik 240 V-ra bitarteko korrante alternoa (KA) behar du funtzionatzeko, 50/60 Hz. Erabil ezazu hormako KA entxufe estandarra; ezin da korrante zuzeneko elikatze iturririk erabili. Gogoan izan 110-240 V bitarteko KAKo elikatze iturria ukitzea hilgarria izan daitekeela.



Deskodetzailera sare elektrikora konektatu baino lehen, ziurtatu konexio elektriko guztiak ondo daudela. Kable bat konektatu edo deskonektatu aurretik, deskonektatu beti deskodetzailera.



Deskodetzailera sare elektrikora konektatzean, konektatu elikatze kablea deskodetzaileren atzeko panelean dagoen elikatze konektorerara, baina kontuan izan kablearen beste muturra hormako entxufera konektatu baino lehen egin behar duzula hori beti.



Deskodetzailera sare elektrikitik deskonektatzean, atera hormako entxufetik elikatze kablea, baina kontuan izan deskodetzaileren atzeko paneleko elikatze konektoretik kablearen beste muturra kendu baino lehen egin behar duzula hori beti.



Ez ahalegindu sekula deskodetzailera konpontzen edo berregiten. Baimenik gabeko pertsona batek deskodetzailera konpondu, desmuntatu edo muntatzen badu, deskarga elektriko larria gerta daiteke.



Kontuz ura edo beste likidoren bat unitatearen gainera erortzen bada. Deskonektatu berehala elikatze kablearen entxufe.



### ZER EGIN

- ✓ Kaxan zerbait erortzen bada, deskonektatu deskodetzailera eta eraman teknikari aditu bati, azter dezan.
- ✓ Aireak behar bezala zirkula dezala, barruan beroa pila ez dadin. Ez ipini unitatea erradiadore baten ondoan eta segurtatu atzeko paneleko aireztapenak ez daudela estalita.
- ✓ Garbitzean, deskonektatu deskodetzaileren elikadura eta erabili zapi lehor bat beti.

### EZ ZER EGIN

- ✗ Ez ipini deskodetzailera muturreko tenperaturak, zuzeneko eguzki-argia edo hezetasun handia dagoen tokian.
- ✗ Ez ipini objektu astunik (bideo-grabatzailea, adibidez) deskodetzaileren gainean.
- ✗ Ez ipini deskodetzailera oihal, alfonbra edo su har dezaketen materialen gainean.



## Aurkibidea

<b>1 Sarrera</b>	<b>1</b>
<b>2 Zer dator deskodetzailearekin batera?</b>	<b>2</b>
<b>3 Deskodetzailea</b>	<b>3</b>
Aurreko panela	3
Atzeko panela	4
Txartel adimenduna	4
<b>4 Instalazioa</b>	<b>5</b>
Nola konektatu deskodetzailea	5
Deskodetzailea sintonizatzea	7
<b>5 Urrutiko agintea</b>	<b>9</b>
<b>6 Funtzionalitateak</b>	<b>12</b>
PIN kodea erabiltzea	12
Edukiak blokeatzea	12
Deskodetzaileko hizkuntzak	13
Erabiltzaileen profilak	13
Minigida	14
Alarmak	15
Pay Per View	16
Gida	17
Posta elektronikoa	17
<b>7 Laguntza teknikoa eskatu aurretik</b>	<b>18</b>
<b>8 Ekipo elektriko eta elektronikoen tratamendua bizitza erabilgarria amaitzean</b>	<b>20</b>



## 1 Sarrera

Deskodetzaile digital interaktiboa erabiltzen baduzu, bistaratzea askoz ere errazagoa izango da: askoz ere informazio eta argibide gehiago emango dizu eta zuk eta zure familiak ikusten duzuenaren hobeto kontrolatu ahal izango duzu, orain arteko beste edozein lurreko telebista-sistemarekin konparatuz.

Deskodetzaileak aukera hauek eskaintzen dizkizu:

- Orain eta geroago zein programa emango dituzten kanaletan ikustea, horiei buruzko informazio zehatzarekin
- Zure seme-alabek egokiak ez diren programak ikus ditzaten eragozteko
- Deskodetzailearen konfigurazioa aldatzea
- Kanal gogokoenen zerrenda sortzea

Erabiltzaile-profil desberdinak sortzea familiako kide bakoitzarentzat. Gainera, kontratatu duzun produktuaren arabera:

- Programak zerrendatzea, mota, genero eta beste hainbat irizpideren arabera.
- Programak markatzea ikusteko edo grabatzeko
- Film eta kirol-ekitaldiak erostea
- Zerbitzu interaktiboetan sartzea, adibidez, posta elektronikora
- Eta beste hainbat aukera



Funtzio bakoitza xehetasunez azaltzen da aurrerago, eskuliburu honetan.









Kontuan izan deskodetzailea noizbehinka automatikoki egunera daitekeela kablearen bidez eta software berriak deskodetzailearen funtzionalitatea alda dezakeela.



## 2 Zer dator deskodetzailearekin batera?

Euskaltelen deskodetzaile digital interaktiboarekin batera elementu hauek datoz:

IZENA	ELEMENTUA	DESKRIPZIO / FUNTZIOA
DESKODETZAILE INTERAKTIBO BAT		Telebista Euskaltelen kablara konektatzen duen ekipoa.
TXARTEL ADIMENDUN BAT		Kanal digitalak jasotzeko txartel hau beharrezkoa da.
URRUNEKO AGINTE UNIBERTSAL BAT ETA BI PILA		Kanalez aldatzeko agintea.
BI KABLE EUROKONEKTORE		Deskodetzailea telebistarekin eta bideoarekin edo DVDarekin konektatzeko.
KABLE MEHE BAT		Deskodetzailea telebistarekin, bideoarekin edo DVDarekin konektatzeko.
ELIKATZE-KABLE BAT		Deskodetzailea sare elektrikora konektatzeko.



### 3 Deskodetzaile digital interaktiboa

#### Aurreko panela




#### Aurreko panelaren botoiak

Botoiak	Funtzioa
	Itxarote-modutik funtzionamendu-modura pasatzen da eta alderantziz. Funtzionamendu moduan, itxarote LEDak argi berdea dauka; itxarote moduan, berriz, gorria.
	Gezien bidez, pantailako menuetan eta informazio barran batetik bestera mugi zaitezke.
	Sintonizatutako programaren informazio-barra erakusten du pantailan.

Botoiak	Funtzioa
	Deskodetzailea itxarote moduan dagoenean, zenbakidun pantailatxoak ordua adierazten du; deskodetzailea piztuta dagoenean, berriz, ikusten ari zaren kanala.
	Lau LED daude deskodetzailearen aurreko panelean. Lehenengoak deskodetzailea piztuta edo itxarote moduan dagoen adierazten du. Bigarrena mezu elektronikoa bat jasotzean pizten da. Hirugarrenak zerbitzu interaktiboaren konexioaren egoera adierazten du. Laugarrena etorkizuneko erabilererarako gordeta dago.



## Atzeko panela



- 1- EUROKONEKTOREA bideora konektatzea
- 2- EUROKONEKTOREA telebistara konektatzea
- 3- Audioaren eskuineko irteera HiFi sistemarentzat
- 4- Audioaren ezkerreko irteera HiFi sistemarentza

- 5- Audio-digitalaren (Dolby AC3) irteera
- 6- Ethernet konexio-ataka
- 7- Telebistaren IM irteera
- 8- Euskaltelen kablearen sarrerako seinalea
- 9- Elikatze-entxufeja, 250V - 63Hz

## Txartel Adimenduna

### Txartel Adimenduna

Deskodetzailea telebista-jirradi-kanal kodifikatuetara sar daiteke, Nagravisión baldintzapeko sarbide-sisteman oinarrituta. Kanal digital kodifikatu horiek jasotzeko, txartel berezi bat behar duzu eta txartel hori EUSKALTELeK emango dizu. Sartu txartela poliki zirrikitan (txipa berantz begira).

### Txartel adimenduna zaintzea

Txartela hauskorra denez, ohar hauek hartu behar dituzu kontuan:

- Ez tolestu txartela
- Ez ipini txartela eguzkitan edo beroa dagoen tokian.
- Txartela sartutakoan, utzi zirrikitan behin betiko
- Garbitzeko, erabili zapi leun eta lehorra










6

## Beste conexio batzuk


### HiFi Sistema

- 6 Deskodetzailearen eskuineko (R) eta ezkerreko (L) audio-irteerak eta musika ekipoaren eskuineko (R) eta ezkerreko (L) audio-sarrerak konektatzea (kable hau ez dator beste elementuekin batera)



### Dolby Digital – Home Cinema hargailua

- 7 Deskodetzailearen audio digitalaren irteera eta Dolby Digital ekipo-hargailuaren audio digitalaren sarrera (sp-dif) konektatzea (kable hau ez dator beste elementuekin batera) Dolby Digital hargailua.





## Deskodetzailea sintonizatzea

### Deskodetzailea lehenengo aldiz piztea

Deskodetzailea lehenengo aldiz piztean, Euskaltelen TB interaktiboko zerbitzuaren ongietorriko pantaila agertzen da.



Deskodetzailea eurokonektorearen bidez telebistara konektatu baduzu, pantaila hori automatikoki agertuko da. Konexioa IM kablearen bidez soilik egin bada, deskodetzailearen kanala sintonizatu behar da telebistan. Horretarako, jarraitu telebistaren kanalak sintonizatzeako argibideak aipatu pantaila agertu arte.

OK tekla sakatzen baduzu, hizkuntza hautatzeko pantaila agertuko da. Aplikazioen testua nahi duzun hizkuntzan ikusteko, hautatu hizkuntza hori urrutiko aginteko gezien bidez. Ondoren, lehenetsitako hizkuntza aldatu nahi baduzu, aukera hori ESKULIBURUAREN Lehentasunak atalean aurkituko duzu.

Hizkuntza hautatutakoan, deskodetzaileak kanalak automatikoki sintonizatzen ditu. Prozesu horrek segundo batzuk iraungo du eta barra batek prozesuaren egoera erakutsiko du pantailan.

Sintonizazioa amaitutakoan, telebista- eta audio-kanal kopuruari buruzko informazioa agertuko da pantailan. Sintonizatutako lehen kanala ikusteko, sakatu OK tekla.





8

Prozesuan erroreren bat gertatuz gero, horren jakinarazpena agertuko da pantailan.



Kasu horretan, itzali deskodetzailea, berrikusi konexioak eta errepikatu prozesua. Arazoak bere horretan jarraitzen badu, jarri harremanetan Laguntza Teknikoko Zerbitzuarekin telefono honetara deituz: **1718**

#### **Interaktibitatea: Euskaltelen zerbitzu interaktiboetara lotzea**

Aplikazio batzuek funtzionatu ahal izateko, deskodetzailea Euskaltelen zerbitzu interaktiboaren sarera lotu behar da.

Lotze-prozesua automatikoki egiten da deskodetzailea piztean.



Zerbitzu interaktiboaren konexioaren egoera adierazteko LEDa

Zerbitzu interaktiboaren konexioaren egoera adierazteko LEDa

Deskodetzailearen aurreko panelean, hirugarren LEDak zerbitzu interaktiboaren konexioaren egoera adierazten du.

Lotzeko prozesuan, LEDak gero eta azkarrago egiten du dir-dir, finko geratu arte, lotura ongi gauzatu bada. Loturarik lortzen ez bada, LEDa itzali egiten da eta prozesu osoa hasieratik hasten da berriz. LEDa piztuta ez badago, aplikazio interaktiboek ez dute behar bezala funtzionatuko. Kasu horretan, jarri harremanetan, TB Digital Interaktiboaren Laguntza Zerbitzuarekin, telefono honetan: **1718**





## 5 Urrutiko agintea

Deskodetzailea urrutiko agintearekin erabiltzean, jarri agintea deskodetzailearen aurreko panelari begira.












Botoiak	Funtzioa
	Kontrolatutako ekipoa piztu edo itxarote-modura pasatzen du.
	Ekipo kontrolatuaren orde, telebista (TV), bideoa edo DVD irakurgailua (AUX) eta Euskaltelen deskodetzailea (EKT) erabiltzeko aukera ematen dute.
	Zenbakiak eta letrak sartzeko aukera ematen dute. Kanalak zuzenean zenbakiak sartuz hautatzeko. Hautaketak idazteko, adibidez, PIN kodea edo aukeraren balioa. Utilitate batzuetan testua idazteko, adibidez, posta elektronikoan edo A-Z gidan (aplikazio horietan mugikor baten teklatuak bezala funtzionatzen du).
	Deskodetzailean profil aktiboa hautatzeko aukera ematen du.
	Audio-menura eta azpitu-tuluetara sartzeko balio du.
	Deskodetzailearen bolumena igotzen eta jaisten du.
	Deskodetzailearen soinua kentzen du.
	Laguntza-menuetara sartzen da. TV edo AUX moduan, telebistaren pantailaren itxura aldatzen du (zooma, 16:9...)
	Kanalez kanal aurrera edo atzera joaten da.
	Programei buruzko informaziora sartzeko aukera ematen du.
	Botoi honen bidez, programazio-gidara sartu zaitezke zuzenean.
	Pantailako menuetan batetik bestera joateko eta nahi den aukera hautatzeko erabiltzen dira.





Botoiak	Funtzioa
	Menuaren pantailatik irten eta telebista-programara itzultzeko erabiltzen da.
	Menuetan aurreko pantailara itzultzeko aukera ematen du.
	Koloretako teklak hainbat funtziotarako erabiltzen dira, hautatutako menuaren arabera.
	Pelikulak eta kirol-emanaldiak erosteko menuetara sar daiteke.
	Atari interaktibora sar daiteke.
	TV-mail posta elektronikoaren baliagarritasunera sar daiteke.
	Konfigurazio-menura sar daiteke.

Baliteke, hainbat telebista-, bideo- edo DVD irakurgailu-modelotan eskuko aginteak ematen duen kontrola partziala izatea, alegia, ekintzarik arruntenak kontrolatzeko aukera ematea eta beste zenbait ekintza gauzatzeko aukerarik ez ematea, hala nola, hainbat konfigurazio-menu, grabatzeko programazioa, etab. aldatzea.





## 6 Funtzionalitateak

Deskodetzaile honek hainbat funtzionalitate onartzen ditu.

### **PIN kodea erabiltzea**

---

PIN kodea lau zifrako zenbakizko kodea da eta segurtasun-kode gisa erabiltzen da egoera hauetan:

- Konfigurazio-menua sartzean.
- Gida "sentikorren" pantailara sartzean; adibidez, hauen konfigurazioa aldatzeko: PINa, gurasoen kontrolaren mailak, kanalak blokeatzea, PIN kontrola aktibatzea/desaktibatzea.
- Segurtasun-kodearen kontrola eskatzen duten erosketak berrestean.
- Ikus-entzunezko edukiak desblokeatzean. Eduki horien rating maila Gidan konfiguratutako Gurasoen kontrolaren mailatik gora egongo da.
- Kanaletarako sarbidea blokeatzeko zerrendan agertzen diren kanalak (EPG zerbitzuan konfiguratutak) desblokeatzean.

Lehenetsitako kodea 1234 da, baina alda daiteke Gidako Lehentasunak atalean.

Deskodetzaile bakoitzak bere PINa dauka, eta ez da posta elektronikora eta profil bakoitzaren datu pertsonaletara sartzeko profilen PINaren berdina.

### **Edukiak blokeatzea**

---

- Kanalak blokeatzea eta Gurasoen kontrola:  
Lehentasunak menuan, konfiguratu daitezkeen aukera gisa agertzen dira kanaletarako sarbidea blokeatzea eta edukien arabera blokeatzea edo gurasoen kontrola.  
Bi azpimenu horietara sartzeko, aurrena segurtasun-kodea edo PIN kodea sartu behar da.
- Kanalak blokeatzea menuak erabiltzaileak eskura ditzakeen kanalen zerrendaren blokeoak hautatzeko j ezeztatze aukera ematen du.
- Edukiak blokeatzea edo gurasoen kontrola konfigurazio-menuak sailkapen moralaren maila hautatzeko aukera ematen du; horren arabera, eduki jakin bat bistaratzea blokeatzea edo ez erabakiko da.

Bost kontrol-maila daude erabilgarri: TP: publiko guztientzat

+7: ez da gomendatzen zazpi urtetik beherakoentzat +13: ez da gomendatzen hamahiru urtetik beherakoentzat.

+13: ez da gomendatzen hamahiru urtetik beherakoentzat

+18: ez da gomendatzen hemezortzi urtetik beherakoentzat

X: eduki erotiko edo indarkeria handikoa.





## Deskodetzaileko hizkuntzak

---

Menuko aukera honen bidez, erabiltzaileak nahi dituen hizkuntzak hauta ditzake erabilera hauetarako:

- Kanalak sintonizatzean erreproduzitu behar den audioaren hizkuntza.
- Menuetako hizkuntza (euskara edo gaztelania): Hau da, aplikazioko menuekin lotutako testuetan eta errore- edo laguntza-mezuen testuetan erabili behar den hizkuntza. Menuen hizkuntzarako egindako konfigurazioa programazioari buruzko informazioari ere aplikatuko zaio (programaren izenburua, sinopsi laburra eta zabala).
- Azpittituluaren hizkuntza.

Konfigurazio hau GIDAko Lehenetsunak atalean dago.

## Erabiltzaileen profilak

---

Deskodetzaileak familiako kideen informazio pertsonala gordetzeko aukera ematen du. Informazio hori erabilgarria izango da eta beharrezkoa da aplikazio batzuk erabiltzeko; hala nola, posta elektronikoa eta beste zerbitzu batzuk; adibidez, txata, foroak, berehalako mezularitza (erabilgarri badaude) eta Euskaltelen Porra.

Erabiltzaile bakoitzaren profila KONFIGURAZIOA atalean zehaztu behar da.

Erabiltzaile-profil bakoitzak PIN kode bat edukiko du eta, horren bidez, erabiltzailearen datu pertsonaletarako eta posta elektronikorako sarbidea murriztu ahal izango du. Erabiltzaile-profil bakoitzak bere PINa izango du eta, gainera, deskodetzailearen PINa ez bezalakoa izango da (ikus 'PINa erabiltzea'). Bezeroarentzako arreta-zerbitzuak konfiguratutako profilek edo zerbitzua kontratatzean konfiguratutakoek lehenetsitako PINa dute; hauxe, hain zuzen ere: 1111.





## Minigida

Telebistako kanal bat ikusten ari zaren bitartean, informazio zabaldua (zuzendaria, aktoreak, zein herrialdetakoa den, urtea, sinopsia...) lor dezakezu ikusten ari zaren programari buruz, baita ondoren emitituko den programari buruz ere.



- 1- Kanal-zenbakia
- 2- Kanalaren izena
- 3- Kanalaren ikonoak: kanal gogokoena eta/jedo blokeatua
- 4- Ikuskizunaren ikonoak: informazio zabaldua baduzu, hizkuntzak, azpiztituluak, adinaren rating-a, PPVko ikuskizunak...
- 5- Uneko ikuskizuna
- 6- Hurrengo ikuskizuna
- 7- Prozesuaren barra hasierako eta amaierako orduarekin.
- 8- Ikuskizunaren generoa/azpigereroa
- 9- Kanal horren eguneroko programaziora sartzeko botoi urdina
- 10- Botoi horia: lehentasunen atalean zehaztutako kanal gogokoan soilik nabigatzeko sarbidea
- 11- Ezkerrera eta eskuinera geziak: beste kanal batzuetako programetan nabigatzeko
- 12- Gora eta behera geziak: uneko eta hurrengo ikuskizunaren artean mugituko zara.





## Alarmak

---

Programazio-alertak konfiguratzeko menua irekitzeko, sakatu OK tekla titulu baten gainean edo Pay Per View ez diren programen zerrendaren pantailatako batean.

GERO, GAUR GAUEAN, A-Z ZERRENDA, Alarma horiek ondorengo ikuskizunetatik eta minigidaren eguneko programaziotik programa daitezke.

Alertak konfiguratzeko menuak baldintza hauek bete behar ditu:


- Lotutako hainbat emanaldi dituzten edukientzat, alarma zein emanaldiri ezarri nahi zaion hautatzeko aukera eskainiko da.
- Alarma-mota hautatu ahal izango da: grabatzeko edo bistaratzeko.
- Alarma (bistaratzekoa zein grabatzekoa) une jakin bati eta dial bati lotzeko aukera, edukiaren titulua edozein dela ere.

Bi alarma-mota daude:

- Bistaratze-alarma: alarmak jotzean ohar bat erakusten da, erabiltzaileari gogorarazteko programatutako titulua laster hasiko dela dagokion dialean.
- Grabatze-alarma: alarmak jotzean alarmarekin lotutako diala eta programa automatikoki sintonizatzen dira.


Erreserben pantaila bat dago, eta hor une horretan sisteman aktibo gisa erregistratutako alarman zerrenda ikus dezake erabiltzaileak, edozein dela ere alarma-mota (bistaratzea, grabatzea, edukiari lotutakoa edo ordu-eremuari eta kanalarari lotutakoa). Pantaila horretan, erositako Pay Per View ikuskizunak ere agertuko dira, bistaratze-alarma baitute. Lehendik programatutako alarmak ken daitezke, baina Pay Per View ikuskizunei lotutakoak erosketen zerrendatik bakarrik ken daitezke, IPPV aplikazioan.





## Pay Per View ikuskizunak erostea

---

IPPV aplikazioak STBren bidez ikuskizunak erosi eta erreserbatzeko aukera emango dizu urrutiko agintea erabiliz. Aplikazio horrek zuzeneko sarbidea dauka, urrutiko aginteko  tekla sakatuz sartzen da bertara. Pay Per View ikuskizunak hiru modutan erosi ditzake bezeroak:

- Gidan
- Minigidan
- IPPV aplikatzean

Aplikazio horietan hurrengo 7 egunetako Pay Per View ikuskizunak erakusten dira, baina erosketa-leihoan hurrengo 48 orduetan eskainiko diren emanaldiak bakarrik agertzen dira.

Ikuskizunak honela erosten dira IPPV aplikazioaren bidez: 'Mirador' pantailan kontratatu nahi duen ikuskizuna hautatzen du erabiltzaileak, dagokion generoaren barruan.

- Ikuskizuna hautatutakoan, ikuskizun horren emanaldi guztiei buruzko informazioa emango du aplikazioak, eta erabiltzaileak haietako bat hautatu ahal izango du.
- Ikuskizuna 'futbol' generokoa baldin bada, erosketa zuzenean egingo da, emanaldien pantailatik pasatu gabe.
- Emanaldia hautatutakoan, erosketa-prozesua hasiko da. Ikuskizun horien erosketa PIN kodearen bidez (ikus 'PINa erabiltzea' atala) babestuta badago, PIN kodea sartzeko eskatuko zaizu erosketa burutzeko.
- Erositako ikuskizunak bertan behera utz daitezke erosketen pantailan agertu baino 5 minutu lehenago gehienez, IPPV aplikazioan.
- Hautatutako ikuskizuna emititu baino bost minutu lehenago, alarmak joko du erositako ikuskizuna hasiko dela jakinarazteko bezeroari (ordura arte bezeroak erosketa bertan behera utzi ahal izango du).

**Oharra: Telebista digital interaktiboa duten bezeroentzat soilik.**





## Gida

---

Zerbitzu honen bidez atal hauetan sartu ahal izango zara:

Programazioari buruzko informazio zehatza. Honela banatuta dago:

- ORAIN eta GERO : batetik, une horretan ematen ari diren ikuskizun guztiei buruzko informazio zabaldua eskaintzen du; bestetik, hurrengo ikuskizunetarako sarbidea, generoaren arabera sailkatuta, bezeroak informazioa errazago bila dezan.
- GAUR GAUEAN: aurreko atalean bezala, gau horretako ikuskizunei buruzko informazioa ematen da. Gaueko ikuskizunak 22:00 eta 02:00 bitartean emititzen dira.
- A-Z: hurrengo 7 egunetako ikuskizunen tituluaren zerrenda. Generoaren arabera sailkatuta daude, epe horretan emango diren emanaldi guztiekin. Gidaren zerbitzuak bilaketa-motor zuzena eskaintzen dio erabiltzaileari programak erraz bilatzeko, tituluaren eta emisio-orduaren arabera. Gidan zehaztutako programazioen (ORAIN, GERO, GAUR GAUEAN, A-Z) informazioa duten pantailetan tituluak alfabetikoki hautatzeko aukera egongo da. Horretarako, urrutiko aginteko teklatu alfanumerikoko edozein tekla sakatu besterik ez duzu.


- **Alarmak:** 'Alarmak' atalean azaltzen da xehetasun gehiagorekin.

- **Lehentasunak:** atal honetan, erabiltzaileak funtzionalitate hauek zehatz ditzake: PINa aldatzea, gurasoen kontrola, kanalak blokeatzea, kanal gogokoenak hautatzea...

**Oharra: Telebista digital interaktiboa duten bezeroentzat soilik.**

## Posta elektronikoa

---

Aplikazio honek zuzeneko sarbidea dauka; urrutiko aginteko  tekla sakatuz sartzen da bertara. Horren bidez, postontzian jasotako mezuak bistaratu, haiei erantzun, berriro bidali eta ezaba ditzake erabiltzaileak. Aplikazio hau erabiltzeko, beharrezkoa da aurrez erabiltzaile-profila (ikus 'Erabiltzaile-profila' atala) konfiguratzea. Erabiltzaile guztien pribatasuna gordetzeko asmoz, postaren aplikazioan sartzeko, erabiltzailea egiaztatu behar da profilaren PINaren bidez, betiere, erabiltzailek bere kontuak PINaren bidez babesteko beharra zehaztu badu profilean.

Profila sortutakoan, aukera hauek izango dituzu: EUSKALNETen kontu berri bat sortu; lehendik duzun EUSKALNETen kontu bat konfiguratu, telebistaren posta-aplikaziotik postontzira sartzeko; edo postako beste IMAP4 kontu batzuk konfiguratu. Halaber, aplikazio honetan kontaktuen helbide-zerrenda erabil daiteke. STBren aurreko panelean, bigarren LEDa piztuko da, postontzirene batean mezu bat jasotzen duzunean. MINIGIDAN, botoi berdea sakatuz, mezu berriak zein profiletara iritsi diren ikus dezakezu.








## 7 Laguntza tekniko eskatu aurretik

Deskodetzailearentzat laguntza tekniko eskatu aurretik, begiratu ondo taula honi arazoaren zergatia aurkitzeko. Egiatzapen simple batzuk edo doikuntza txiki batzuk eginez, arazoa konpondu eta berriro martxan jar dezakezu deskodetzailea. Taulan adierazitako irtenbideek arazoa konpontzen laguntzen ez badizute, jarri harremanetan bezeroarentzako arreta-zerbitzuarekin. Ez aldatu instalatzaileak egin zuen konfigurazioa edo kableak konektatu ziren modua.

Sintoma	Konponbidea
Deskodetzailearen aurreko panelean ez da argirik pizten.	Egiatzatu elikatzeko kablea eta entxufea behar bezala konektatuta daudela. Egiatzatu hormako entxufeak korrontea baduela.
Urrutiko agintea ezin da erabili deskodetzailea kontrolatzeko.	Egiatzatu deskodetzailea funtzionamendu-moduan dagoela. Egiatzatu urrutiko agintea deskodetzailearen aurreko panelari begira jarri duzula. Begiratu urrutiko agintearen pilak ondo dauden.
Deskodetzailearen aurreko paneleko itxarote-adierazlea gorri dago.	Deskodetzailea itxarote moduan dago. Urrutiko agintean, sakatu  botoia, edo  botoia deskodetzailearen aurreko panelean.
Deskodetzaileak ez du erantzuten urrutiko aginteko botoiak edo deskodetzailearen aurreko paneleko botoiak sakatzerakoan.	Transmisioan behin-behineko errorea dago edo deskodetzaileak softwarearen konfigurazioaren zati bat galdu du. Deskonektatu deskodetzailea sarefik eta konektatu berriro segundo batzuk igarotakoan.
Telebistako irudiaren kolorea aldatu egiten da. Hori korrontea etetean edo deskodetzailea sare elektrikotik deskonektatzean gerta daiteke.	Deskodetzaileak softwarearen konfigurazioaren zati bat galdu du. Deskonektatu deskodetzailea sarefik eta konektatu berriro segundo batzuk igarotakoan. Arazoak bere horretan jarraitzen badu, jarri harremanetan bezeroarentzako arreta-zerbitzuarekin.
Telebistaren pantailan lerro horizontalak agertzen dira kanal digital guztietan.	Deskodetzailea hondatuta dago. Harremanetan ipini bezeroarekiko arreta-zerbitzuarekin.
Telebistaren pantaila zuri jartzen da aldizka eta gero irudia erakusten du berriro.	Deskodetzailea hondatuta dago. Harremanetan ipini bezeroarekiko arreta-zerbitzuarekin.
Pantailako irudien blokeak ageri dira.	Seinala akastuna da edo deskodetzailea hondatuta dago. Itxaron seinala berriro ezarri arte edo hautatu beste kanal bat. Arazoak bere horretan jarraitzen badu, jarri harremanetan bezeroarentzako arreta-zerbitzuarekin.
Telebistaren pantaila zuri dago.	Egiatzatu txartel adimenduna ondo sartu duzula zirrikitan. Atera eta sartu berriro. Deskodetzailea itxarote moduan badago, sakatu  botoia urrutiko agintean; bestela,  botoia deskodetzailearen aurreko panelean (telebista AV moduan dagoen soilik aplikatzen da). Egiatzatu deskodetzailea sare elektrikora konektatuta dagoela eta behar bezala konektatuta dagoela telebistara (telebista AV moduan dagoenean soilik aplikatzen da). Deskonektatu eta konektatu berriro deskodetzailea.





Programaren zati bat bakarrik grabatu da bideoan	Grabatzen ari zela, deskodetzailea itxarote modura aldatu edo kanalez aldatuko zenuen.
Bideoko grabazioan testua agertzen da edo grabazioaren bolumena aldatu egiten da.	Grabatzen ari zela, menu bat ireki edo bolumena kontrolatzeko botoiak sakatuko zenituen.
Telebistaren pantailan 'elurra' ageri da.	Deskodetzailea itxarote-moduan dago (hori itxarote-adierazpen gorriaren bidez adierazten da aurreko panelean). Sakatu  botoia urrutiko agintean, edo  deskodetzailearen aurreko panelean. Deskodetzailea piztuta dago, baina telebista ez dago sintonizatuta digitalki bistaratzeko kanalean (deskodetzailea eta telebistaren artean UHF konexioa erabiltzen baduzu bakarrik aplikatzen da hori). Deskodetzailearen konexio batzuk lasai egon daitezke. Egiaztatu deskodetzailea behar bezala konektatuta dagoela sare elektrikora eta telebistara. Arazoak bere horretan jarraitzen badu, jarri harremanetan bezeroarentzako arreta-zerbitzuarekin.
Ez dago soinurik	Begiratu aktibatuta ote dagoen  MUTE ikonoa deskodetzailean. Hala bada, erabili deskodetzailearen etajedo telebistaren urrutiko agintea MUTE funtzioa kentzeko. Begiratu deskodetzailearen edo telebistaren bolumena behar bezain altu dagoen. Sakatu deskodetzailearen edo telebistaren urrutiko aginteko bolumenaren botoiak. Txartel adimenduna atera eta berriz sartu baduzu, hautatu beste kanal bat eta itzuli jatorrizko kanalera. Egiaztatu deskodetzailea behar bezala konektatuta dagoela telebistara edo soinu-sistemara (hi-fi). Baliteke konexio batzuk lasai egotea. Surround aukera hautatu duzu, baina uneko Audio hizkuntza eta kanpoko surround soinuaren deskodetzailea itzalita daude. Arazoak bere horretan jarraitzen badu, jarri harremanetan bezeroarentzako arreta-zerbitzuarekin.
Aparatuaren lehenengo konexioaren ondoren ez dago Ongietorri pantailarik.	Sistema irrati-maiztasunen kableen bidez konektatuta dago eta telebista ez dago sintonizatuta digitalki bistaratzeko kanalean.
Interferentziak daude bideoan edo kanal analogikoetan.	Irrati-maiztasuneko kableen bidez konektatu duzu sistema eta fabrikari ezarritako irteera-kanala ez da egokia. Sintonizatu gailua berriro 'Configuración de fábrica' ikonoarekin, Setup menuan.
Pantailako irudia 'zapalduta' (alde batetik bestera edo goitik behera) edo pantailaren goian edo behean moztuta agertzen da.	Telebistaren pantailaren proportzioa ez da ezarri Konfigurazioa menuan zure telebistarekin bat etortzeko. Aldatu parametro hori.

Neurri horiek arazoa konpontzen ez badute, deskonektatu elikatze kablearen entxufea korrante alternoko entxufetik, eta konektatu berriro.





## 8 Ekipo elektriko eta elektronikoaren tratamendua bizitza erabilgarria amaitzea

**(Europako Batasunean eta hondakinak gaika biltzeko sistemak dituzten Europako herrialdeetan aplikatzeko)**

2018/2005 Errege Dekretuak –gailu elektriko eta elektronikoei eta haien hondakinei buruzkoa, otsailaren 25ekoa– ezartzen dituen eskakizunak bete behar dituen ekipo bat duzu esku artean; beraz, arren eskatzen dizugu jarraibide hauek arretaz irakurtzeko:



Zure ekipoan eta/edo material informatikoan agertzen den sinbolo horrek adierazten du ez dela etxeko ohiko hondakinekin batera bota behar haren bizitza baliagarria amaitutakoa; alegia, **EZ DA HIRI-HONDAKINEN EDUKIONTZIAN UTZI BEHAR**, hondakinak gaika biltzeko gune batean bereizita tratatu eta kudeatu behar da.

Jarraibide horiek errespetatuz gero, ekipo hau gaizki erabiltzeak ingurumenean eta giza osasunean eragin ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitzen lagunduko duzu, eta, gainera, hondakinak ingurumenaren aldetik behar bezala kudeatzen eta zure inguruko ingurumena zaintzen lagunduko duzu.

Ekipo hau birziklatzeari buruzko informazio zehatzagoa nahi izanez gero, tokiko agintari eskumendunengana edo hurbilen duzun gaikako biltegira jo dezakezu.

